

e-HIZPIDEren ezaugarri nagusiak

1. 1983tik paperean argitara eman ziren ZUTABE (1983-1994) eta HIZPIDE (1995-2015) aldizkarien jarraipen digitala da e-HIZPIDE. Berezko nortasuna du aldizkari elektronikoak; izan ere, bere ISSN-a du argitalpen digitalak eta DOI zenbakia, berriz, argitaratzen diren artikuluek.
2. Argitalpen jarraitua da; alegia, ez dago argitara emateko data jakinik eta artikuluek ez dira aldi berean argitaratzen. Hala ere, urtean bi zenbaki plazaratuko dira, ekainean eta abenduan hain zuzen, seihileko bakoitzean agertutako artikuluek guztiak bilduta.
3. Artikuluek euskaraz argitaratzen dira. Zuzendaritzak hala baderitzo, beste hizkuntzaren batean aurkeztutako edota idatzitako lanak itzuli egingo dira.
4. *Creative Commons By-NC-ND* lizentziarekin argitaratuko dira artikuluek Irakasbil atarian eta era askean eskuratu ahal izango dira.

e-HIZPIDEren esparruak eta gaiak

5. e-HIZPIDEk, helduen euskalduntzearen alorrean diharduenez gero, berezko esparru ditu lehen hizkuntzaren eta xede-hizkuntzen ikas-irakastearekin zerikusia duten zientziak eta esparruak. Horregatik emango ditu argitara Psikolinguistika, Euskal Filologia, Linguistika aplikatu, Soziolinguistika, Andragogia, Pedagogia, IKT eta Kudeaketa Akademikoaren inguruan idatzitako artikuluek; betiere, irakurleen ezagupena sendotu eta guztion arteko eztabaida emankorra sorrarazi eta informazio esanguratsua emateko asmoz.
6. e-HIZPIDEk, nahiz eta aipaturiko jakintza-alorrei buruzko ekarpenak hobetsi, ez ditu baztertuko helduez beste gizataldeekin aritzen direnenak edota bestelako alorretakoak, baldin eta ikas-irakas egoera ezberdinetan aritzen direnentzat ere baliagarri bezain interesgarri gertatzen badira.

Luzera

7. Orientabide gisa, artikuluen luzera 15 bat orrialde ingurukoa izango da gehienez; 2.900 karaktere (zuriuneak barne) jotzen da orrialdetzat. Artikulu luzeagoak aurkeztekotan, litekeena da zatitzea eta zenbaki desberdinetan argitaratzea, betiere egilearekin adostuta.

Artikuluaren euskarriak

8. Artikuluek euskarri digitalean aurkeztuko dira. Microsoft-eko Word testu-prozesadorearekin bateragarria den edozein testu-prozesadore erabil daiteke horretarako.

Laburpenak eta deskriptoreak

9. Hasieran, laburpena emango da, titulu eta egilearen izenarekin eta datuekin batera. Laburpenok ehun hitz ingurukoak izango dira, eta bertan era inpersonalean emango da artikuluen mamia. Halaber, gehienez, bost deskriptore edo gako-hitz ere proposatuko dira.

Irudiak eta grafikoak

10. Gogo onez hartuko dira artikulua irakurterazagoa egiten lagunduko duten irudiak, grafikoak eta horrelakoak. Edonola ere, egile-eskubideak zaindu beharko dira. Erreproduzitzeko materialak kalitate onekoa izan behar du, eta, ahal dela, bereizitako fitxategian eta editatzeko moduan igorriko da.

Erreferentziak

11. Bibliografia eta erreferentziak artikuluen bukaeran emango dira.
12. Artikuluan erabiliko diren erreferentzia bibliografikoetarako, *APA (American Psychology Association) Style* ereduari jarraituko zaio.

13. Aurreko arauen laburpen gisa, era honetara emango dira aipua eta egileen erreferentziak testuaren barnean:

40 hitz edo gutxiagoko aipua

Testua komatxo artean, eta gero egilea, urtea eta orrialde-zenbakia, dena parentesi artean jarrita. Bestela, egilea eta, horren ondoren, urtea parentesi artean, testua komatxo artean eta, bukatzeko, orrialde-zenbakia parentesi artean.

40 hitz baino gehiagoko aipua

Testua bloke gisa, koskaz bereizia eta bukaeran (egilea, urtea, XX or.) jarrita.

Webgune orokor baten aipua, ez testu jakin batena

Nahikoa da URL-a edo esteka aipatzea.

14. Hona hemen aipatutako ereduaren ohiko adibideetako batzuk.

Liburua

– *Egile bakarra denean*

Siguán, M. (1996). *La Europa de las lenguas*. Alianza Editorial.

–*Bi egile direnean eta sei baino gutxiago*

Jonassen, D., eta Grabowski, B. (1993). *Handbook of individual differences, learning and instruction*. Lawrence Erlbaum.

Aldizkari-artikularia

Fulcher, G. (1996). Testing Tasks: Issues in Task Design and the Group Oral. *Language Testing*, 13(1), 23-51.

Liburu baten atala

Haristchelhar, J. (1988). Le basque. Une langue résistante. In G. Vermes (ed.), *Vingt-cinq communautés linguistiques en France*, (87-104 or.). L'Harmattan.

Linean dagoen dokumentua

Fumero, A. (2005). Un tutorial sobre blog. El abecé del universo blog. *Telos. Cuadernos de comunicación e innovación*, 65, 46-59.

http://sociedadinformacion.fundacion.telefonica.com/telos/articulocuaderno.asp?id_articulo%3D1&rev%3D65.htm

Ruiz, F. (2014, ekainaren 15a). Cómo enviar cualquier tipo de archivo por WhatsApp. *Androidsis*. [Blog-sarrera]. <http://www.androidsis.com/como-enviar-cualquier-tipo-de-archivo-por-whatsapp>

DOI duen objektu digitala

Adam, D. (2002). The counting house. *Nature*, 415, 726-729.
<http://doi.org/10.1038/415726a>

Zuzendaritzaren esku

15. e-HIZPIDEren zuzendaritzak aukeratuko du jasotako zein artikulua eta zein zenbakitan eman argitara.

Eta beste

16. Lan originalak ordaindu egingo dira, argitaratzeko unean indarrean dauden HABEK kanpoko lankidetzak ordaintzeko ezarritako dituen tarifen arabera.

17. Argitaratzen diren lanen egileak, irakurleek egin litzaketen iruzkin eta galderei erantzuteko ahalegina egingo dute, eztabaida didaktikoaren mesedetan.

18. e-HIZPIDEren zuzendaritza ez da argitara emandako iritzi edo baieztapenen erantzule.

Harremanetarako

HABE

e-HIZPIDE aldizkaria

Vitoria-Gasteiz, 3.

20018 Donostia

i-murua@habe.eus / b-ariztimuno@habe.eus